

COVID iraunkorra serotoninaren jaitsierarekin erlazionatuta egon daiteke

COVID iraunkorraren sintomak dituzten pazienteekin egindako [ikerketa bat argitaratu du *Cell* aldizkariak](#). Haren arabera, litekeena da zerikusia izatea serotoninaren jaitsierarekin.

Zenbait pazienteren gorozki-laginak aztertuta, ohartu ziren batzuek SARS-CoV-2 birusaren arrastoak zituztela. Hortik ondorioztatu zuten birusaren konposatuek hesteetan irauñ zutela, eta ikusi zuten konposatu horiek immunitate-sistemaren erantzuna pizten zutela. Zehazki, konposatu horien aurkako proteina batzuk sorrarazten zituzten, interferoiak.

Interferoiek hantura eragiten dute hesteetan, eta horrek triptofano aminoazidoa behar bezala xurgatzea eragozten du. Aminoazido hori hesteetan ekoizten diren zenbait neurotransmisoreen osagaia da; tartean, serotoninarena. Eta serotoninak funtsezko zeregina du garuna eta gorputza konektatzen dituzten funtzio nagusi askotan.



ARG.: Crocotherapy/Shutterstock.com.

Horrenbestez, ikertzaileek uste dute serotoninamailaren jaitsierak eragin ditzakeela COVID iraunkorraren ohiko sintoma batzuk: burua "lanbrotuta" edukitzea eta kontzentratzeko arazoak izatea, memoria galtzea, nekea... Are gehiago: saguetan frogatu dute serotoninamaila igota memoria-arazoak hobetzen direla. ●

Alzheimerrean neuronak nola hiltzen diren azaltzeko mekanismo bat argitu dute

Alzheimerrean neuronak nola hiltzen diren ulertzeko beste pauso bat eman du nazioarteko ikertzailetalde batek; tartean, Achucarro zentroko Amaia Arranz Mendigurenek. [Science aldizkarian argitaratu dute lana](#), eta adierazi dute aukera berriak ireki ditzakeela terapiarako.



ARG.: Achucarro Neurozientziarako Euskal Zentroa.

Ikerketa horretan, saguen eta gizakien neuronak txertatu dituzte amiloide-plakak zituzten sagu-ereduetan, alegia, Alzheimerrean ikertzeko erabiltzen diren sagu-ereduetan. Eta ikusi dute giza neuronak kaltetu egiten direla; ez, ordea, sagu-neuronak. Besteak beste, Tau proteinen fosforilazioa, harilketa neurofibrilarra eta heriotza zelularra behatu zituzten.

Horrez gain, ikusi zuten giza neurona horiek MEG3aren adierazpen handia zutela (RNA ez-kodetzailu luze bat). Hori bera gertatzen da Alzheimerrean duten pertsonetan. Esperimentuan, frogatu dute MEG3ak neuronan nekroptosia aktibatzen duela, eta, are gehiago, baieztatu dute MEG3aren adierazpena eragozteak neuronak heriotzatik babesten dituela. ●